la flota de Sennachérib.




Ontzidi feniziarra Senakerib errege asiriarrarena.
Flota fenicia del rey asirio Senaquerib.



Behe-erliebea, Ninive hiri asiriarrean aurkitua.
Bajorrelieve descubierto en la ciudad asiria de Ninive.



Asiriarren galera (Albert-en taxuketa) / Galera asiria (Composición de Albert) .



LOS GRIEGOS: SIGLO XIV - SIGLO II A. C.

Aunque la colonización griega comenzó propiamente a mediados del siglo XIII a. C., la misma tenía unos antecedentes muy antiguos: entre los siglos XIV-XIII a. C. los aqueos ya habían explorado las costas orientales de Sicilia y de la península italiana.

La invasión de los dorios a comienzos del siglo XII, a. C. provocó una emigración masiva de los helenos hacia el Asia Menor. Lo que en un primer momento eran asentamientos fundamentalmente agrícolas, con el tiempo se convirtieron en ciudades con un espíritu marítimo comercial cada vez más consolidado.

Estas «polis» o ciudades griegas fundaron factorías y establecieron una organización comercial, eminentemente marítima, a semejanza de sus vecinos fenicios.

La expansión mediterránea

El ámbito de la expansión correspondía al que habían desafiado los fenicios, esto es la costa Sur de Europa, entre Italia y la Península Ibérica.

De entre las ciudades de más espíritu colonizador van a destacar Mileto y Focea, mientras que las colonias más importantes serán Cumas (la primera ciudad griega de Occidente, de mediados del siglo XIII a. C.), Neápolis (Nápoles), Messina, Siracusa, Massalia (Marsella), Moneco (Mónaco), Nicea (Niza), Emporias (Ampurias), Rode (Rosas), Melusa (Menorca), Cromiusa (Mallorca), y otras a lo largo del Mediterráneo ibérico que jalonaba la ruta con Tartesos.

GREZIARRAK K. A. XIV.-II. MENDEETAN

Greziarren kolonizazioa berez K. a. XIII. mendearen erdialdera hasi bazen ere, oso antzinakoak ziren haren aurrekariak, hau da, K. a. XIV-XIII. mende artekoak; ordurako esploratzen zituzten akeoek Siziliako eta italiar penintsularen ekialdeko kostaldeak.

K. a. XII. mende hasierako doriarren inbasioak greziar askoren immigrazio jendetsu bat ekarri zuen Asia Txiki alderantz. Hasieran, funtsean nekazari-asentamenduak zirenak, denborak aurrera egin ahala, itsas merkataritzarako gero eta joera nabarmenagoa zuten hiri bilakatu ziren.

Greziarren hiri edo «polis» horiek sortutakoak dira lantegiak eta, horrez gain, itsas merkataritza bikain bat antolatu zuten, auzoko feniziarrek bezala.

Mediterraneoko hedapena

Greziarrak Europako Hegoaldera hedatu ziren, hau da, Italia eta Iberiar Penintsula artera, feniziarrek aintzat hartu gabeko alderdira.

Izaera kolonizatzaile nabarmenena izan zuten Miletok eta Fozeak, aldiz, kolonia garrantzizkoenak hauek izan ziren: Kumas (lehen hiri greziarra, K. a. XIII. mendearen erdialdekoa), Neapolis (Napoli), Mesina, Sirakusa, Massalia (Marseila), Moneco (Monako), Nicea (Niza), Emporias (Ampurias), Rode (Rosas), Melusa (Menorca), Cromiusa (Mallorca) eta tartesostarren ibilbidea zedarritzen zuten iberiar Mediterraneoko beste zenbait.

(el Elba?), que desembocaba en el Océano nórdico, bajaron a este mar y, navegando a lo largo de su costa, «dejándola a la izquierda», arribaron a Gades.

A mediados del siglo II a. C., exactamente el 146 a. C., tiene lugar un acontecimiento que va a cambiar a los protagonistas del Mediterráneo: Cartago y Corinto son saqueadas y destruidas por los romanos, quienes se constituyen en nueva potencia.

kandinaviako Ozeanoan itsasoratzen zen ibai (Elba?) batetik, itsaso horretara jaitsi eta haren ertzetik nabigatuz, «ezkerrera utzita», iritsi ziren Gades-era.

K. a. II.aren erdialdera, zehatzago esanda K. a. 146.aldera, Mediterraneoeko protagonistak aldarazi zituen gertakari bat suertatu zen: Kartago eta Korinto arpilatu eta suntsituz, botere bilakatu ziren erromatarrek.

GREKOAK / GRIEGOS




Itsasontzi greko eta etruskoak, heroien garaietakoak.


Ulisesen ontzia, Britainiar Museoko edalontzi baten arabera (ezk.) Merkataritza-ontzi etruskoa (esk.)

Embarcaciones griegas y etruscas de los tiempos heroicos.

Nave de Ulises, según un vaso del Museo Británico (izda.) Nave de comercio etrusca (dcha.)

Merkantzia-ontzi grekoa / Buque mercante griego.





GEOGRAFÍA E HISTORIA EN EL ESPACIO MARÍTIMO VASCO

ALTA EDAD MEDIA (SIGLOS V-XII)

POR JUAN JOSÉ BIKANDI



Muchas veces, al analizar nuestro pasado, ignoramos el mar o no le damos la importancia que ha tenido. Por ello cabe preguntarse hasta qué punto ha actuado como factor aislante y hasta qué punto como comunicante.

¿Qué influencia ha tenido, no sólo en la costa, sino también en tierra adentro?

¿Cómo ha condicionado las actividades del hombre, su distribución del espacio y el poblamiento?

¿Ha vivido el vasco de cara, o de espaldas al mar?

A lo largo de las siguientes líneas vamos a ir por el camino trazado por estas interrogantes a través de un amplio período de tiempo, comprendido desde la presencia romana (siglo I a. C.) hasta finales de la Alta Edad Media (siglo XII). Analizaremos una cadena de acontecimientos que han tenido su influencia en el País:

- la herencia romana, basada en la explotación de riquezas, en los asentamientos costeros y en una amplia red de rutas marítimas y terrestres;
- los oscuros y aparentemente aletargados primeros siglos medievales, caracterizados por un desplazamiento de los asentamientos hacia el interior de las rías debido a la piratería;
- el florecimiento de finales del siglo XII, que supone una vuelta lenta pero irreversible a la costa, cimentada sobre unas bases nuevas: la fundación de Villas con Fuero poblacional y el auge de las actividades pesqueras y comerciales gracias al nivel de técnica naval alcanzado por estos años; técnica en la que la herencia normanda jugará un papel fundamental.

Antes de nada, debemos saber que las noticias que tenemos de este largo período de tiempo no son muchas; y de ellas, las que tienen alguna relación con el mar son menos aún. Debido al original enfoque del tema, se impone una relectura de los datos, algunos de ellos aparentemente insignificantes pero que al final nos van a deparar más de una sorpresa, como luego veremos.

Vamos a hacer un recorrido por los acontecimientos puntuales y por los fenómenos históricos de más largo desarrollo pero que tengan una significación marítima. Ello descubrirá delimitaciones que se han hecho de ese espacio, usos que de él han hecho los extraños al país, funciones que le han asignado los autóctonos, y significaciones que ha tenido en perspectiva histórica.

GEOGRAFIA ETA HISTORIA EUSKAL HERRIKO ITSAS EREMUAN

GOIZ ERDI AROA (V-XII. MENDEAK)

JUAN JOSE BIKANDI



Sarritan, gure iragana aztertzerakoan, itsasoa ez dugu kontuan hartzen edo izan duen baliorik ez diogu aitortzen. Horregatik egokia izan daiteke galdera: zenbateraino izan da isolatzaile eta zenbateraino komunikatzaile?

Kostaldean ez ezik, izan al du eraginik barrualdean?

Nola baldintzatu ditu gizakiaren ekintzak, espazioaren banaketa eta populatzea?


Itsasoari begira edo bizkar emanda bizi izan da euskalduna?


Galdera horien ildotik joango gara aro luzeetan zehar bidea eginez, hasi erromatarren garaitik (K. a. I. mendea) eta Goiz Erdi Aroa (XII. mendea) bitartean. Gure herrian eragina izan duen gertakizun-kate bat aztertuko dugu:

- erromatarren ondarea, aberastasunen ustiaketan, kostaldeko kokalekuetan eta itsasoko nahiz lehorreko bide-sare zabalean oinarriturikoa;
- Erdi Aroko lehen mende ilun eta itxuraz lozorroko haietan, itsaslapurretak zirela medio, kokalekuak itsasadarretatik barnealdera lekualdatu zirenekoa;
- XII. mendearen amaierako loraldia, berriro kostaldera itzultze geldia baina atzeraezina ekarri zuena, oinarri berrien gainean finkaturikoa: hiri-gutunen bidez hiribilduak fundatu ziren eta urte horietan ontzigintzan lortutako teknikei esker arrantza eta merkataritza jardueren gorakada; funtsezkoa izan zen normandiarren herentzia teknika horietan.

Ezer baino lehen, gauza bat jakin behar dugu, ez direla askoaldi luze horri buruzko aipamenak; eta horietatik, itsasoarekin zerikusia dutenak are gutxiago. Gaiak helduleku berezia baduela-eta, behar-beharrezkoa izango dugu datuak berriro irakurtzea, itxuraz batzuk hutsalak diruditen arren, ustekabeko bat baino gehiago emango baitigute, ikusiko dugun bezala.

Gertakari zehatzetan zehar ibiliko gara eta itsasoarekin zerikusiren bat duten garapen luzeagoko fenomeno historikoe-tan barrena. Horrek azalduko ditu esparru horretan egin diren mugaketak, bertako atzeritarrek nolako erabilera eman zioten, bertakoek zer funtzioa eman zioten, eta historiaren ikuspegitik izan zituzten esanahiak.





Piragua monoxiloa edo zuhaitz-enbor hustua.
La piragua monoxila o tronco de árbol ahuecado.





En este mapa podemos observar la articulación espacial guipuzcoana-navarra y de Navarra hacia el norte, con Francia. Solo están representados los caminos que de las grandes poblaciones salen hacia el norte o los que unen estas poblaciones entre ellas.

Mapa honetan ikus daiteke Gipuzkoa eta Nafarroaren antolamendu espaziala nahiz Nafarroa iparralderantz Frantziarekin lotzen duenarena. Hemen bide nagusiak baino ez dira ikusten: herri handietatik iparrerantz irteten diren bideak eta herri horiek elkarren artean lotzen dituztenak.

GEOGRAFÍA E HISTORIA EN EL ESPACIO MARÍTIMO VASCO

LA BAJA EDAD MEDIA (S. XII-XV)

por JUAN JOSÉ BIKANDI

INTRODUCCIÓN

L

La fundación de las villas costeras de Bayona y de San Sebastián

La fundación de la villa de San Sebastián, supone para el litoral cantábrico un hito que diferencia dos etapas muy diferentes: el final de una situación de inseguridad y replegamiento poblacional en el interior de las rías y el comienzo de una apertura hacia el mar y la infinidad de territorios a través del cual nos relacionamos.

Esta nueva etapa, que se abre con la fundación de la villa donostiarra hacia el año 1180, va a continuar con unas características parecidas hasta finales del siglo XV, en el que un acontecimiento tan importante como el descubrimiento y posterior conquista y colonización de América va a marcar el final de esta etapa y el comienzo de otra bien diferente.

Pero antes de entrar a analizar las características de este período, se impone, siquiera someramente, un repaso de los antecedentes que dieron lugar a la situación del País con la que nos encontramos a finales del siglo XII.

Antecedentes del retorno a la costa

Distribución de las tribus vascas perpendicularmente a la costa

Recordando las primeras noticias históricas que tenemos de nuestro País, la llegada de los romanos supuso un cambio de mentalidad en todos los sentidos con respecto al que tenían nuestros antepasados. La distribución de las tribus vascas a ambos lados de la divisoria de aguas, de manera perpendicular al mar y con los límites comunes en los ríos, vimos como evidenciaba la naturaleza pastoril de las mismas; la escasa relación con el mar se realizaba a través de los monóxilos, más fluviales que marinos, de herencia cultural neolítica.

GEOGRAFIA ETA HISTORIA EUSKAL HERRIKO ITSAS EREMUAN

BERANT ERDI AROA (XII-XV. M)

JUAN JOSE BIKANDI

SARRERA

K

Kostaldeko bi hiribilduren fundazioa: Baiona eta Donostia

Kantauri kostaldearentzat bi aro oso desberdin markatzen dituen gertakaria izan zen Donostia hiribilduaren fundazioa: batetik, ziurtasunik ezaren eta populazioak itsasadarretan gora atzera egin zueneko aldiaren bukaera eta, bestetik, itsaso aldera irekitzea eta haren bitartez ezin konta ahala lurraldeekin harremanetan hastea.

Aro berri horrek, 1180 aldera Donostia hiribildua sortzearekin hasi zenak, ezaugarri berdintsuekin jarraitu zuen XV. mendera bitartean, eta orduan gertakari oso garrantzitsu batek, Amerikaren aurkikuntza eta ondorengo kolonizazioak, aro horren bukaera eta beste oso aro desberdin baten hasiera ekarri zuen.

Baina, aro berriaren bereizgarriak aztertzen hasi aurretik, derrigorrezkoa zaigu, laburki bederen, XII. mendearen bukaeran Euskal Herrian aurkituko dugun egoera eragin zuten aurrekarietara gainbegiratu bat ematea.

Kostaldera itzultzea: aurrekariak

Euskal leinuak

kostaldearekiko perpendikularki antolatuak

Euskal Herriaz ditugun aipamen historikoak gogora ekarriz, erromatarren etorrerak gure arbasoek lehendik zuten pentsamoldea aldatzera bultzatu zuen, zentzu guztietan. Lehendik ikusi dugu banalerroaren bi isurialdeetan, itsasoarekiko perpendikularrean eta ibaiak bata bestearekiko muga zitutela antolaturik egoteak gure leinuen artzain-izaera agerian jartzen zutela; itsasoarekin zuten harreman apurra, neolitikoko kultur ondare ziren monoxiloen bidez lantzen zuten, alegia itsasorako baino ibaiearako egokiagoak ziren ontziez.



Islandiako XVII. mendeko irudiak garai hartako balearen inguruko jarduera zehatza irudikatzen du.

Grabado del siglo XVII que representa la actividad específicamente ballenera en Islandia en aquella época.



Orion harrapatutako azken balea (1901).

La última ballena pescada en Orio (1901).

CONTEXTO DE LA EPOPEYA DE LOS BALLENEROS VASCOS EN TERRANOVA

por IÑAKI ZUMALDE

INTRODUCCIÓN

Un pueblo marinero

E

En la historia de las colonizaciones y navegaciones universales, las proezas de los marineros vascos cuentan poco. Éramos un pueblo pequeño englobado entre dos reinos que en pasados siglos pesaron mucho en el concierto de Occidente. Si algún vasco participaba en determinada hazaña que cuenta la historia, lo hacía como español o francés. En ocasiones, si el cronista de turno era puntilloso y amigo de precisiones, señalaba que era un vasco, sin darle mayor importancia.

Los vascos fueron, entre otras cosas, marineros, y por ende, constructores de naos de bien ganado prestigio. Es digno de señalar cómo la mayoría de los viajeros que a lo largo del siglo XVI pasaron por nuestra tierra, y dejaron constancia escrita de sus observaciones, elogiaron los navíos que se construían en los astilleros que se levantaban en sus costas. Navíos de gran porte que los monarcas hispanos, e incluso los franceses, valoraron sobremanera y a los que recurrían cuando organizaban armadas para alguna contienda bélica.

A la caza de la ballena

Excelentes constructores de navíos, tripulados por expertos e intrépidos marineros, nuestros antepasados se distinguieron de un modo especial en una empresa en la que llegaron a ser maestros indiscutibles: la pesca o caza de la ballena.

Es lugar común entre los eruditos historiadores que se dedicaron a temas del mar, el considerar a los vascos como pioneros en esta especialidad. Sin embargo, algunos historiadores franceses sostienen que los primeros en dedicarse a ella fueron los normandos, si bien reconocen que sus discípulos los vascos, se convirtieron pronto en maestros indiscutibles.

Llegados a este punto, no podemos menos de traer a estas páginas un texto del historiador romántico Jules Michelet, que en su lirismo desbordante encierra un precioso y preciso retrato del arrantzale vasco. Aparece en su obra *La Mer* publicada en 1861:

EUSKAL BALEONTZIEN EPOPEIA TERNUAN, TESTUINGURUA

IÑAKI ZUMALDE

SARRERA

Marinel-herri bat

E

Euskal marinelen balentriak ezer gutxi dira kolonizazio eta nabigazio unibertsalen historian. Bi erresumen arteko herri txiki bat ginen, iragan mendeetan Mendebaldeko hartzarmenean eragin handia izan zuen herri txiki bat alegia. Historiak kontatzen dituen ekintza gogoangarri haietako batean, euskaldun batek parte hatzen bazuen, parte-hartzailea ez zen espainol edo frantses bat baizik. Zenbait alditan, baldin ohiko kronikaria zehatza edo arduratsua bazen, azpimarratuko zuen euskalduna zela, baina inportantzia handirik eman gabe.


Besteak beste, marinela eta ondo merezitako sona irabazia zuten ontzigileak izan ziren euskaldunak. Aipagarriak dira XVI. mendean zehar gure herritik igaro ziren bidaiari gehienek nolako goraiamenak egiten zituzten gure ontzietan eraikitzen ziren ontziez, idatzizko oharrik uzten bazuten. Hispaniako errege-erreginek nahiz frantsesek izugarri estimatzen zituzten itsasontzi tantai haiek eta, gerra-gatazkaren bat zenean, haien bila jotzen zuten armadan hartan parte hartzeko.

Balearen harrapaketara

Ontzigile bikainen ontziekin, marinel iaio eta ausartek tripulatzen zituztenekin, oso modu berezian gailendu ziren gure arbasoak, dudarik gabeko maisutasuna agertu zuten zeregin batean: balearen ehizan edo harrapaketan.

Itsasoko gaiak aztertzeari emanak diren historialari jakituen topikoa da espezialitate horretan euskaldunak aitzindari izan zirela esatea. Hala ere, zenbait historialari frantsesen ustez, normandiarrak izan ziren langintza horretan ibili ziren lehenak, nahiz eta aitortzen duten euskaldunak berehala egin zirela aparteko maisu haien ikasle.

Honaino iritsita, ezingo dugu orrialde hauetara ekarri gabe utzi Jules Michelet historialari erromantikoaren testu bat, gainezka darion lirikotasun eder eta zehatzean euskal arrantzalearen argazkia ezkatzen duen testua. 1861n argitaratutako *La Mer* izeneko obran agertzen da:



BENJAMÍN DE TUDELA

TOMADO DE «LIBRO DE VIAJES DE BENJAMÍN DE TUDELA»
Riopiedras Ediciones. Barcelona

Versión castellana, introducción y notas por
JOSÉ RAMÓN MAGDALENA NOM DE DEU

EL VIAJERO Y SU RELATO

Datos biográficos y personalidad

F

Fruto de sus vivas experiencias, las más de las veces directas, exquisitamente plasmadas en sus notas de viaje, Benjamín de Tudela nos ha legado un interesante reportaje, un jugoso documental, de no sólo cuanto vio sino también de lo que le contaron. Su *Libro de Viajes* (en hebreo: *Séfer-Masa'ot*) es la única fuente documental que nos proporciona alguna luz acerca de su vida y personalidad. Desconocemos cuál fue la fecha exacta de su nacimiento (acaso hacia 1130), pero en el prólogo anónimo de su *Séfer-Maasaot* consta de manera bien patente que era hijo de rabí Jonás, natural de la ciudad de Tudela del país de Navarra.

Cabe ya descartar, pues, la equivocada suposición de que era toledano, aduciendo la posible metátesis de las dos últimas consonantes de la palabra Tudela; ni siquiera castellano, al decir de la expresión: *a su regreso a tierras de Castilla* (también del prólogo). Esto último nos permitiría pensar, todo lo más, que pasó por aquel reino en su viaje de retorno hacia su ciudad natal (y de partida) Tudela.

Siempre siguiendo el testimonio del desconocido prologuista de su *Libro de Viajes*, Benjamín de Tudela era *hombre inteligente e ilustrado, versado en la Torá y en la Halajá* (es decir, en cuestiones bíblicas y talmúdicas), ostentando, además, el título de rabí. Su sólida formación en tales materias se refleja cumplidamente en el *Libro de Viajes*, cuajado de referencias a los textos sagrados.

Políglota consumado, además de los romances hablados por las gentes de su región dominaba a la perfección el hebreo y el arameo, lenguas que poseía todo judío cultivado; entendía el árabe y acaso el griego y el latín, tal como indica algún que otro pasaje aljamiado intercalado en el texto hebreo de *Séfer-Masa'ot*.

Sus conocimientos en historia clásica y medieval también los podemos rastrear a lo largo de la narración, citando a varios emperadores romanos (Tiberio, Nerón, Vespasiano, Tito), a Alejandro el Magno, Seleuco, Aristóteles el filósofo, a Pipino el Breve, padre de Carlomagno...

BENJAMIN TUTERAKOA

«LIBRO DE VIAJES DE BENJAMÍN DE TUDELA» LANETIK HARTUA
Riopiedras Argitalpenak. Bartzelona

Gaztelaniako bertsioa, hitzaurrea eta oharrak:
JOSÉ RAMÓN MAGDALENA NOM DE DEU

BIDAZTIA ETA BERE KONTAKIZUNA

Datu biografikoak eta nortasuna

B

Benjamin Tuterakoak bere esperientzia bi-ziak biltzen dituen erreportaje interesgarri bat utzi digu, zuzeneko esperientziak dira gehienetan, ikusi zuena ez ezik, esan ziotena ere bere bidaia-oharretan dotore irudikatu zuen dokumental mamitsua. Hark idatzi zuen *Bidaia-liburua* (hebreeraz: *Séfer-Masa'ot*) da haren bizitzari eta nortasunari buruzko zenbait argi printza ematen dizkigun iturri dokumentatu bakarra. Ez dakigu noiz jaio zen zehazki (1130 aldera, agian), baina oso nabarian agertzen da *Séfer-Masa'ot* liburua hizaurre anonimoan, jatorriz nafarra eta Tuteran hiriko rabbi Jonasen semea zela.

Dagoeneko baztertu beharrekoa da toledoarra zela diotenen uste okerra, Tuteran hitzaren azken bi kontsonanteen metatesia izan daitekeela argudiatzen dutenena; eta are gehiago gaztelaua zela ziotenena, kontuan hartzen bada honako esamoldea: *Gaztelako lurretara itzuli zenean* (hizaurrekoa hau ere). Azken horrek agian erresuma hartatik igaro zela pentsatzeko bidea eman diezaguke, baina gehienez ere, Tuteran bere jaioterrirantz itzulerako bidaian (eta abiatzerakoan) zihoala.

Bere *Bidaia-liburuaren* hizaurregile ezezagunaren testigantzarri jarraituz, Benjamin Tuterakoa *gizon azkarra eta ilustratua zen, Torá eta Halajá liburuetan aditua* (gai biblikoetan eta tamudikoetan, alegia), eta horrez gain, bazuen rabbi edo maisu titulua ere. Gai horietan zuen prestakuntza, testu sagaratuei buruzko aipuez josia, *Bidaia-liburuan* soberan islatzen da.

Eleaniztun bikaina zen, haren eskualdeko jendeak hitz egiten zuen erromantzeez gain, judu jantziak bereganatuak zituen hizkuntzak, hebreera eta arameera, guztiz menderatzen zituen; arabiera ulertzen zuen eta greziera eta latina ere bai agian, hebreerazko *Séfer-Masa'ot* testuan sartutako aljamitutako pasarte batek edo bestek adierazten duen bezala.

Historia klasikoaz eta Erdi Arokoaz zituen ezaupideen arrastoak kontakizunean zehar ere azaltzen zaizkigu, zenbait erromatar enperadoreren aipuetan —Tiberio, Nerón, Vespasiano, Tito— eta Alexandro Handia, Seleuko, Aristoteles filosofoa, Pepin Laburra (Karlomagnoaren aita)...

Era igualmente muy experto y entendía en diversas artesanías, oficios y negocios: sus agudas observaciones acerca de las gemas, el coral y las perlas, los tejidos y la tintorería, los vidrios, especias y perfumes, han hecho sospechar que la motivación primera de su largo viaje acaso fuese una misión comercial, al menos lo suficientemente lucrativa y beneficiosa como para poder financiar con éxito tan dilatado como costoso periplo.

La fecha de llegada también nos consta en el prólogo: fue en el año 4933 del calendario hebreo —que corresponde al 1172-1173, según el cómputo gregoriano cristiano—, *a su regreso a tierras de Castilla*, como queda dicho más arriba. Quizá la muerte le sorprendiera poco después, todo lo más tardar en 1175.

Traducciones

Cupo al insigne humanista y hebraísta español Benito Arias Montano el gran honor de iniciar y culminar la primera versión del *Séfer-Masá'ot* a la lengua latina.

La segunda versión latina es la de Constantino L'Empereur de Oppyck, doctor en Teología y profesor de Lengua Hebrea en la Universidad de Leiden.

Faltaba una traducción castellana y es en el año 1918 cuando de los talleres de Sanz Calleja, editores e impresores de Madrid, salieron los *Viajes de Benjamín de Tudela. 1160-1173. Por primera vez traducidos al castellano con introducción, aparato crítico y anotaciones por Ignacio González Llubera*.

Parco y preciso en la descripción, vivaz y lineal en la narración, directo y casi coloquial, sin excesivas pretensiones estéticas, el tono del discurso es lo suficientemente ágil y ameno como para que el lector se sienta al punto interesado —cuando no sorprendido y hasta fascinado— por el rico caudal de variopinta información que contiene este enciclopédico reportaje.

Bajo la apariencia formal de un *itinerario*, Benjamín de Tudela pasa revista a tres aspectos fundamentales, omnipresentes a lo largo de todo el *Séfer-Masá'ot*: I) los judíos y su situación (tanto socio-económica como política y religiosa, II) las grandes líneas de la política en y entre las naciones del mundo cristiano occidental y las del ámbito islámico oriental, y III) los centros mercantiles y artesanales de ambos mundos, así como las rutas comerciales que los unen o pudiesen unir.

De esta manera nos indica las distancias entre las sucesivas ciudades o puntos geográficos que visita, si por vía terrestre utilizando ya la *legua*, ya la *jornada*; si por vía marítima o fluvial, el *día de navegación*. Pondera las ventajas de los puertos, la inseguridad de los mares infestados de piratas o los caminos peligrosos por los bandidos y las inclemencias del medio.

Este *itinerario* es, salvo contadas excepciones, una sucesión de comunidades hebreas.

El itinerario

Partiendo Benjamín de su Tudela natal, pasa por Zaragoza y tomando la ruta del río Ebro descendiendo hasta Tortosa, llega al Mediterráneo por Tarragona, sigue después hasta

Oso ikasia zen eta ulertzen zuen artisautzaz, langintzez eta negozioez. Eta harribitxiez, koralaz, perlez, oihalez eta tindatze-lanez, beirez, espezieez eta perfumeez egin zituen oharrek susmarazi izan dute agian merkataritza-misio bat izan zela haren bidaia luzearen arrazoi nagusia, hain ibilbide zabal zein garestia finantzatu ahal izateko lain irabazi eta onura eman ziona.

Iritsiera-data ere agertzen zaigu hitzaurrean: hebrearren egutegiko 4933 urtean izan zen —zenbaketa kristau-gregoriarren arabera, 1172-1173 urteei dagokien urtean—, lehen ere esan dugun bezala, *Gaztelako lurretara itzuli zenean*. Beharbada heriotzak ustekabeen harrapatu zuen; 1175ean beranduenik ere.

Itzulpenak

Espainiar Benito Arias Montano humanista eta hebrearren aditu sonatuari egokitu zitzaion ohorea, *Séfer-Masá'ot*-en lehen bertsioa latinez hastekoa eta bukatzekoa.

Bigarren latinezko bertsioa Konstantino Oppick-ko Enperadorea, Leiden-eko Unibertsitateko Teologian doktore eta hebrearren irakasle zenarena da.

Egin gabe zegoen gaztelaniako bertsioa, baina 1918an argitaratu zituen Madrileko argitaldaria eta inprimatzaileen Sanz Callejaren lantegiak: *Viajes de Benjamín de Tudela. 1160-1173*. Lehenengo aldiz gaztelaniara itzultakoak, Ignacio González Llubera egindako hitzaurrea, aparatu kritikoa eta oharra zituen.

Deskribapenean murrizta eta zehatza, kontakizun bizia eta laua, zuzena eta lagunartekoa da ia, xede estetiko handirik gabea, diskurtsoak behar besteko tonu arin eta atsegina du, eta erreportaje entziklopediko honen emari aberatsak eta informazio ugariak irakurlea berehalakoan interesatzen du —harritzen eta liluratzen ez duenean—.

Ibilbide baten itxuran, Benjamin Tuterakoak hiru funtsezko alderdi ikuskatzen ditu *Séfer-Masá'ot* osoan zehar: I) juduak eta haien egoera sozio-ekonomikoa, politikoa eta erlijiozkoa; II) politikaren lerro nagusiak, mendebaldeko kristau-munduko nazioen eta ekialdeko islam-alorrekoen artekoa, eta III) bi munduen arteko merkataritza- eta artisau-guneak zein elkarrekin lotzen zituen edo lot zitzaketan merkataritza-bideak.

Hala azaltzen dizkigu bisitatzen zituen hiri edo puntu geografikoen ondoz ondoko distantziak, lehorretik baldin bazen, bai *legoak* bai *egunak* erabiliz; itsasoz edo ibaiez baldin bazen, *nabigazio-egunez*. Portuen abantailak neurtzen ditu, itsaslapurrez jositako itsasoko ibilbideak edo ingurune txar eta bidelapurrak zireneko bide arriskutsuak.

Ibilbide hau komunitate hebrearren segida bat da, salbuespenezko kasu batzuetan izan ezik.

Ibilbidea

Tutera jaioterritik abiatu zen Benjamin. Zaragozatik aurrera egin eta Ebro ibaiaren ibilbidea jarraituz, Tortosaraino jaitsita, Tarragonatik barrena iritsi zen Mediterraneora; ondoren

Barcelona y Gerona para internarse en el Rosellón y Provenza. Embarca en Marsella rumbo a Génova, de allí a Pisa, Luca y Roma, bordea la costa hasta Salerno, cruza la península Itálica hasta el Adriático y embarca en Otranto hasta Corfú y Arta. Ya en territorio bizantino se llega a Constantinopla, visita las islas egeas y entra en Asia por Coricos. Bordeando las costas turco-sirias arriba a Tierra Santa —dominada por los Cruzados— visitando Naplus, la santa ciudad de Jerusalén y otros lugares de interés para un ilustrado rabino. Llega a Damasco y por el desierto sirio describe un arco pasando por Jama, Alepo, Racca y, en Mosul, conecta con el valle del río Tigris para descender hacia Bagdad. En esta ciudad debió residir largo tiempo al amparo de su opulenta comunidad hebrea y atraído por el señuelo de los pingües beneficios que podría obtener en tan importante centro mercantil y cultural. Bagdad sería el centro de sus viajes menores por los alrededores, quizás hasta Basora, en la Baja Mesopotamia.

Centros y rutas comerciales

Son los centros de comercio más importantes los puertos mediterráneos: Barcelona, Marsella, Amalfi, Egipto, Armiro, Constantinopla, en el ámbito cristiano europeo, Tiro y Asquelón en Palestina, Alejandría en el Egipto fatimita.

El esquema general de este periplo —aun excluyendo los pretendidos viajes a India, China, Arabia y centro de Europa— es del todo razonable para las posibilidades y ambiciones de un culto y observador comerciante itinerante del siglo XII, como es el caso de Benjamín de Tudela.

La geografía en el *Séfer-Masa^ot*

Algunos de los *mares* en que se subdivide tradicionalmente el Mediterráneo (*mar Último*) son el Egeo (*mar de España*), el Jónico (*mar del país de Grecia*), el de Mármara (insinuado tan sólo al describir Constantinopla) y el Negro (*mar de Rusia*), cuyas aguas surcara Benjamín de Tudela, quien asimismo cita el de la India y el legendario mar Helado de la China, aunque seguramente no los conociese más que por referencias. En Tierra Santa menciona los bíblicos de Tiberiades y de Sodoma, pequeños lagos (de agua dulce el primero y con grandes concentraciones salinas el segundo) conectados al sistema hidrográfico del río Jordán y considerados en el país como verdaderos *mares*. Los accidentes costeros que señala son los *brazos de mar* (golfos o ensenadas), pero también se fija, y mucho, en los puertos, construcciones artificiales que facilitan el comercio marítimo, destacando el de Tiro, con sus dos torres de seguridad y el de Alejandría, con su maravilloso faro y el largo espigón *de una milla de distancia dentro del mar*, al decir de nuestro viajero.

Las *islas* mediterráneas que enumera son: Sicilia, Corfú, las egeas de Mitilene (Lesbos), Chíos, Samos, Rodas, Creta y Chipre. En el mar de la India está la de Quish, gran centro comercial, y en latitudes casi ecuatoriales, la de Berig (Ceylán).

Bartzelonara eta Gironara jarraitu zuen, handik Rosello eta Proventzara sartzeko. Marseillan ontziratu zen Genoara joateko eta handik Pisa, Lucca eta Erromara; Salernoko kostaldetik, Italia penintsula zeharkatuta iritsi zen Adriatikoraino eta ontziratu egin zen berriro Otranton, Korfu eta Artaraino joateko. Bizantzioko lurretara iritsita, Konstantinoplara joan zen, Egeoko Irlak bisitatu eta Coricostik barrena sartu zen Asian. Turkia eta Siriako itsasertzak inguratuz Gurutzatuen mende zegoen Lur Santuan lehorreratu zen eta han bisitatu zituen Naplus, Jerusalemeko hiri santua eta beste zenbait leku, errabino ikasi batentzat interesgarriak. Damaskora iritsi eta basamortu siriarrean zehar arku bat deskribatzen du Jama, Alepo eta Raccatik igaroz, eta Mosul-en Tigris ibaia- ren ibarrari lotzen zaio Bagdad-erantz jaisteko. Luzez bizitua izango zen hiri horretan bere komunitate hebrear aberatsaren babesean eta halako merkataritza- eta kultura-gune garrantzizko batean lortu zitzakeen irabazi oparoen amuak erakarrita. Bagdad izango zen inguru haietatik, agian, Mesopotamia Behereko Basoraraino egiten zituen bidaia txikiagoen erdigunea.

Merkataritza-guneak eta -bideak

Mediterraneoko portuak ziren merkataritza-gunerik nagusiak: Bartzelona, Marseilla, Amalfi, Egipto, Armiro eta Konstantinopla kristau europarren eremuan; Tiro eta Asquelon Palestinan, eta Alexandria, Egipto fatimiarrean.

Gutziz arrazoizkoa da ibilbide horren eskema orokorra —nahiz eta India, Txina, Arabia eta Europa erdira egin nahi zituen bidaiak bazter utzita ere— Benjamin Tuterakoak, XII. mendeko merkataritza ibiltari jantzi eta behatzaile batek, zituen aukera eta anbizioak ikusita.

Séfer-Masa^ot-eko geografía

Tradizionalki Mediterraneo itsasoa (*Azken itsasoa*) hainbat itsasotan zatiturik zegoen: Egeoa (*Espainiako itsasoa*), itsaso Jonikoa (*Grezia herriko itsasoa*), Marmarakoa (zeharbidez Konstantinopla deskribatzerakoan baizik aipatzen ez dena) eta Itsaso Beltza (*Errusiako itsasoa*). Ur horiek ildaskatu zituen Benjamin Tuterakoak, baina beste batzuk ere aipatzen ditu, hain zuzen ere, Indiakoa eta elezaharretako Txinako itsaso Izoztua, baina ziur asko ez zituen erreferentziaz baino ezagutzen.

Lurralde Santuan laku txikiak aipatzen ditu, besteak beste, Tiberiades eta Sodoma biblikoak (ur geza duena lehena eta gatz-kontzentrazio handiak dituen bigarrena): Jordan ibaia- ren sistema hidrografikoari lotuak eta herri hartan benetako *itsasotzat* hartzen zirenak.

Markatzen dituen gorabeherak kostako *itsasoaren adarrak* dira (golkoak eta badiak), baina portuak, itsasoko merkataritza errazten zuten eraikin artifizialak ere begiratzen zituen, asko gainera, batez ere, bi segurtasun-dorre zituen Tirokoa eta, gure bidaztiaren arabera, itsasoan *milia bat sartzan zen* kai-mutur luzea eta faro zoragarri bat zuen Alexandriakoa.

Izendatzen dituen Mediterraneoko *irlak* hauek dira: Sizilia, Korfu, Egeoko Mitilene (Lesbos), Chios, Samos, Rodas, Kreta eta Zipre. Indiako itsasoan Quish, merkataritza-gune handia zuena, eta Berig (Zeilan) latitude ia ekuatorialetan.

Hitzaurrea

ITSASBIDE NAGUSIA. PILOTAKETA ETA AINGURAKETA
nola Frantzia, Bretainia eta Ingalaterrako hala Alemania Garaia eskualdekoak.

Aipatu eskualdeetako portu, badia, ibai eta kanaletako arriskuak.

Almanaka oso erabilgarria itsasoko olatuak ildaskatzera abia daitezkeen itsas lagun guztientzat.

Olerongo Judizioak, itsas auziei buruzkoak (1).

Pierre Garcie, Ferrande zeritzonak prestatua.

Berraztertua eta orraztua.

Rouenen.


Bere saltegia liburutegien atarian duen Jean Crevel Etxean.

1584

Variante de la portadilla
de la edición de Poitiers
de la casa editora:

El Pelicano publicado
por Ian de Marnef.

Almanaque o
calendario reformado,
según la supresión de
diez días (2), muy útil
para marineros.



Argitaletxearen
Poitiers-eko
argitalpenaren
aitzin-orriaren aldaerak
berregin ditugu.
Ian Marnef-ek
argitaraturiko
El pelicano-rena.
Almanaka edo egutegi
erreformatua, hamar
egun ezabatu
ondorengoa (2),
marinelentzat oso
erabilgarria.

Portadilla

EL GRAN DERROTERO MARINO. PILOTAJE Y ANCLAJE tanto de las regiones de
Francia, Bretaña, Inglaterra, como de las altas Alemanias.

Los peligros de los puertos, abras, ríos y canales de las regiones citadas.

Almanaque muy útil para todos los colegas que surcan las ondas marinas.

Los Juicios de Oléron sobre casos navales (1).

Preparado por Pierre Garcie, llamado Ferrande.

Revisada y corregida de nuevo.

En Rouen.

En la Casa Jean Crevel, que tiene su establecimiento en el pórtico de las librerías.

1584

ANTIGUOS PERFILES DE LA COSTA

LAPURDI, GIPUZKOA

PARTE DEL DERROTERO DE PIERRE GARCIE

D

Damos una versión en castellano, que no es más que una aproximación a este curioso testimonio que merecería traducción y lectura críticas.

Reproducimos también un antiguo mapa con rótulos en alemán y latín, que alcanza desde Arcachón a Santander, y que contiene perfiles de referencia del relieve montañoso de la costa.

El derrotero y el mapa son elementos que enriquecen, en este caso con carácter de geografía histórica, la representación de nuestro espacio marítimo.

Texto

... Saint Etienne d'Ars, junto a la cual está hacia la mar. Y de Saint Etienne ve al S-SE e irás a todo lo largo de la costa, punta tras punta, hasta la de Saint Denys d'Oléron. La isla de Yeu y los pasos de Burdeos (3) tienen orientación noroeste-sureste, un cuarto de norte y sur, y hay entre ambos puntos 25 millas. (4)

Si no aciertas a encontrar los pasos irás bordeando Cordouane que es una gran torre que está en la otra orilla del río (5), pero hay grandes peligros apartándose de ella, entre ella y los pasos. E irás también por cerca de Ré y de Oléron que te ofrece la vigilancia del terrazgo de los canales si vas de noche, porque hay grandes peligros.

Belle Ile y Arcachon. Ve al sureste, sur un cuarto, y llegarás cerca de dos grandes bancos que están al norte de Arcachon.

A continuación de la bocana de Bayona. (6)

El higer (7) de Fuenterrabía y la bocana (8) de Bayona tienen orientación nordeste-suroeste, con pequeña desviación de norte y sur.

Desde Fuenterrabía que está tras el higer a Saint Jean de Luz hay dos leguas y entre ambas hay un paso de escollos (9). Debes tener muy en cuenta que cuando la mar rompa en su superficie no trates de buscar su bocana, porque no se desvía nada pero si el mar no rompe en esas rocas ve tranquilo.

KOSTALDEAREN ANTZINAKO PROFILAK

LAPURDI, GIPUZKOA

PIERRE GARCIEREN ITSASBIDEEN ZATI BAT DA

E

Euskarazko itzulpena emango dugu, testigantza bitxi horretara iristeko hurbiltze bat baino ez den itzulpena ez ezik, irakurketa kritiko bat mereziko lukeena.

Antzinako mapa bat ere berregingo dugu, Arcachondik hasi eta Santander bitartekoa. Kostaldearen erliebe menditsua- ren erreferentziako profilak ditu, eta errotuluak alemanez nahiz latinez.

Itsasbideak eta mapak, gure itsas eremuaren irudia aberasten duten bi osagai dira, eta kasu honetan, geografía historikoari dagokion irudia aberasten dute.

Idatzia

... Saint-Etienne d'Ars, haren ondoan dago itsaso alderantz. Eta Saint-Etienn-etik zoaz H-HMra eta kostaz kosta eta muturretik muturrera Olerongo Saint Denys-eraino joango zara.

Yeu uharteko eta Bordeleko igarobideak (3) ipar-mendebalde eta hego-mendebaldeko orientazioa dute, ipar eta hegoko laurdena, eta bi puntuen artean 25 milia daude. (4)

Igarobideak aurkitzen ez baduzu asmatzen, Cordouane, ibaiaren beste ertzean dagoen dorre handia inguratuz joango zara (5), baina arrisku handiak daude hortik aldentzen bazara, horren eta igarobideen artean. Ré eta Oleronetik gertu ere joango zara, eta gaez joanez gero, kanaletako so-roek gordeko zaituzte, arrisku handiak baitaude.

Belle Ile eta Arcachon. Zoan hego-ekialdera, laurden bat hegora, eta Arcachon hegoan dauden bi banku handiren ondora iritsiko zara.

Baionako bokalearen segidan. (6)

Hondarribiko higerrek (7) eta Baionako bokaleak (bocana) (8) IE-HE norabidean daude, ipar eta hegoko desbideratze txikiekin.

Higerren ostean dagoen Hondarribitik Donibane Lohitzunera bi legoa daude eta bien artean bada haitzarteko igarobide bat (9). Erne ibili behar duzu haren kontra itsasoa lehortzean ez duzula saiatu behar bokalea bilatzen, ez baita batiere desbideratzen; baina itsasoa ez bada haitz horietan lehortzen, zoaz lasai.

Liburu hau 2010eko martxoaren 20an,
udaberrian argitaratu zen.

La edición de este libro concluyó
el 20 de marzo, primavera de 2010.
